

III

TEXTO DEL PROYECTO DE LEY EN EUSKERA / LEGE PROIEKTUAREN TESTUA EUSKERAZ

**PROYECTO DE LEY DEL ESTATUTO DE LAS MUJERES AGRICULTORAS.
LEGE-PROIEKTUA, EMAKUME NEKAZARIEN ESTATUTOARI BURUZKOA.**

LEGE-PROIEKTUA, EMAKUME NEKAZARIEN ESTATUTOARI BURUZKOA.

ZIOEN AZALPENA

Nekazaritzaren sektorean emakumeek jasaten duten bereizkeriari aurre egiteko beharragatik onartu da emakume nekazarien estatutua: batik bat, profesionaltzat jotzeko eta jendartean aintzat hartzeko eta beren eskubide profesional, sozial eta fiskalak egikaritzeko.

Estatutu honen abiapuntuan emakume nekazarien eskubideak daude, eta eskubide horiek egikaritzea bermatzeko herri-administrazioek dituzten betebeharrak zehazten ditu. Hortaz, nekazaritzaren sektorean emakumeek eta gizonen tratua eta eskubide berberak izatea lortzeko behar diren neurriak jasotzen dituen legea da, eta genero-ikuspegia sektorearen arlo guztietan sartzekoa, emakumeen eta gizonen baldintzak eta beharrak ezberdinak izaki.

Historian zehar emakumeek jasan duten bereizkeria islatu egiten da emakume nekazari askoren egungo egoeran. Ustiatzearen titularrak diren emakumeen proportzioa handitu egin bada ere, proportzioa desorekatua da oraindik. Ustiatzearen titularrak diren emakumeen proportzioa ez dator bat emakumeek benetan egiten duten lanarekin; izan ere, askotan, lan horiek guztiz ikusezinak dira. Emakume nekazariak titulartasuna eskura dezaten sustatzea da lege honen lehentasunetako bat, beren lana ikusarazteko eta emakumeek lan horren ondorio diren eskubide guztiak lortu ahal izateko. Lege honek hartzen duen beste esparru bat nekazaritza-ustiatzearen kontratatzen diren pertsona da; izan ere, sektore horretan, emakumeen kontratazioa gizonena baino aski txikiagoa da.

Baserritar gazteen egoeraren kasuan, ezberdintasunak agertzen dira oraindik sexuen artean; izan ere, gazteen esku dauden ustiatzearen titularrak diren emakumeen ehunekoa gizonena baino askoz txikiagoa da. Beharrezkoa da, beraz, neurriak hartzea, emakume eta gizon gazteen arteko egiazko berdintasuna sustatzeko eta emakume gazteek lan-aukerak izateko, hala nahi badute landa-eremuetan jarraitu ahal izan dezaten, eta belaunaldi arteko ordezkatzeko erdietsi.

Jardueraren neurri ekonomikoa zenbat eta handiagoa izan, emakumeek hartzen dituzten erabakien ehunekoa txikiagotu egiten da. Nekazaritzaren arloko erabaki-organoetan emakumeek duten parte-hartzea gizonena baino askoz txikiagoa da: agerikoa da, alde horretatik, bermatu egin behar dela emakume nekazariak erabaki-organoetan presentzia izatea eta parte hartzea. Esparru publikoan duten partaidetza emakumeek jasaten dituzten ezberdintasunei aurre egitea ezinbestekoa da, nekazaritzaren arloan emakumeen eta gizonen arteko egiazko berdintasuna erdiesteko.

Zereginak banatzeko ohiko ereduak ezberdintasun handiak sortzen ditu emakumeen eta gizonen artean; eta hori azpimarratu beharreko beste alderdi bat da, emakumeak lan-merkatuan sartzea ez dadin izan lan-zama gehigarri bat, kasu askotan emakumeek soilik hartu dituzten etxeko lanak eta zaintza-lanak partekatu ezin dituztelako. Etxeko lanari eta zaintza-eginkizunei, gizonak eskaintzen dieten denboraren bikoitza baino gehiago eskaintzen diete emakumeek. Aitzitik, emakumeek gizonak baino askoz ere denbora gutxiago daukate aisialdirako.

Beste alde batetik, nekazarien lan-arriskuen prebentzioa gizonezkoen osasuna kaltetu dezaketen alderdietan oinarritu da beti, ondoren emakumeengan eta gizonengan dituzten ondorioak orokortuz. Hala ere, lan-merkatuan sexuen artean dagoen lan-bereizketa handiaren ondorioz, emakumeak eta gizonak lan-ingurune ezberdinetan aritzen dira, tentsio-mota ezberdinekin, baita sektore berean eta lanbide berean ere. Hori dela eta, emakumeen eta gizonen osasunaren gaineko faktore bereizgarriak aintzat hartu behar direla proposatzen da, eta nekazaritzako lanean emakumeen osasuna bermatzeko neurri egokiak hartu behar direla.

Azkenik, emakume nekazarien eta gizon nekazarien arteko egiazko berdintasuna lortzeko beste ezinbesteko zeregin bat da nekazaritzaren arloan gertatzen diren sexu-jazarpen eta jazarpen sexista kasuei aurre egiteko neurri egoki guztiak abiaraztea, eta arlo horretako jazarpenen ezaugarri bereziek berariazko trataera bat eskatzen dute.

Emakume nekazarien estatutu honek ez dauka aurrekaririk araudian, nahiz eta estatutuak lantzeko gomendioak eta baita aginduak ere ugari izan. Hala, Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 4. ataleko 157. artikuluan adierazten denez, estatu kideek neurriak mantendu edo har ditzakete, abantaila zehatzak eskaintzeko, ordezkaritza txikiena duen sexuak autonomo-jarduerak egiteko erraztasuna izatera bideratuak, edo sexu horretako pertsonen lanbide-karreraren dauzkaten desabantailak saihestu edo orekatzera bideratuak.

Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2010eko uztailaren 7ko 2010/41/EE Zuzentaraua autonomo-jarduera bat gauzatzen duten gizonen eta emakumeen artean tratu berdinen printzipioa ezartzearen gainekoa da; eta esparru bat finkatzen du, estatu kideetan autonomo-jarduera bat gauzatzen duten edo horrelako jarduera bat gauzatzen laguntzen duten gizonen eta emakumeen arteko tratu berdinen printzipioa betetzeko.

Aipatzekoak dira, orobat: Kontseiluaren 1978ko abenduaren 19ko 79/7/EEE Zuzentaraua, gizarte-segurantzaren gaian pixkanaka gizonen eta emakumeen arteko tratu berdinen printzipioa ezartzearen ingurukoa dena; eta Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2006ko uztailaren 5eko 2006/54/EE Zuzentaraua, enplegu eta langintza gaietan gizonen eta emakumeen arteko aukera-berdintasunaren eta tratu berdinen printzipioa ezartzearen ingurukoa dena.

Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legeak ezartzen ditu emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren gaian herri-aginteei euren jardunean erabili beharreko printzipio orokorrak. Halaber, neurri batzuk arautzen dira lege horretan, bizitzako esparru guztietan emakumeen eta gizonen arteko aukera-berdintasuna eta tratu berdina sustatu eta bermatzeko, eta emakumeen estatus soziala, ekonomikoa eta politikoa indartzeko eta haien autonomia bultzatzeko. Horren guztiaren azken xedea, berdintasunezko jendartearen lortzea da, bertan pertsona denak aske izan daitezen, bai esparru publikoan eta bai pribatuan, sexuaren araberrako ohiko rolet ezarritako mugarik gabe beren gaitasun pertsonalak garatzeko eta erabakiak hartzeko, eta jendarte horretan emakumeen eta gizonen jokaerak, asmoak eta beharrak berdin kontuan izateko, balioesteko eta bultzatzeko.

4/2005 legearen printzipioen artean daude: tratu berdina –bereizkeriaren debekutzat hartuta–, aukera-berdintasuna, aniztasuna eta ezberdintasuna errespetatzea, genero-ikuspegiaren integrazioa, ekintza positiboa, sexuaren araberrako rola eta estereotipoak desagerraraztea eta ordezkaritza orekatua erabakiak hartzeko eremu guztietan.

Nekazaritza eta Elikagaigintza Politikako abenduaren 23ko 17/2008 Legeak, berriz, emakume nekazariari babes irmo eta erabakigarria eskaintzen die, eta lehentasunez artatu eta sustatu nahi ditu. Hala, 75. artikulua Emakume Nekazarien Estatutua lantzeko agintzen du, eta emakumei begira sustatu beharreko ekintza positiboak zerrendatzen dira. Era berean, helburuen artean dago “emakumeek nekazaritzan eta elikagaigintzan egiten duten lana aintzatestearen alde egitea, sektorean jarrai dezaten laguntzea, eta beren bidea baldintza berdinetan gara dezaten laguntzea; halaber, elkarrekin eta taldeetan sar daitezen bidea erraztea”.

Nekazaritza-ustategien partekatutako titulartasunari buruzko urriaren 4ko 35/2011 Legeak gai hori arautzen du, landa-eremuan emakumeen eta gizonen arteko benetako berdintasuna sustatzeko, emakumeek nekazaritza-jardueran duten parte-hartzearen aintzatespen juridiko eta ekonomikoaren bidez. Lege horretan, partekatutako titulartasunari ez badago, ezkontidearen edo antzeko afektibotasun-harremanen bidez lotutako pertsonaren alde sortutako ekonomia-eskubideak arautzen dira nekazaritza-ustategiaren titularraren aurrean, ustategian egindako ohiko nekazaritza-jardura eragingarriaren kontraprestazio gisa.

Estatutuak 31 artikulua ditu, bi xedapen gehigarri, xedapen indargabetzaile bat eta lau azken xedapen. 6 titulutan egituratuta dago: xedapen orokorrak, nekazaritza-ustategien titulartasuna, sektorean emakumeek duten ordezkaritza, jendarte-eskubideak, beren lana aintzatestea eta ikusaraztea, eta azkenik Estatutuaren Segimendu Batzordea.

I. Tituluan, Xedapen Orokorrak, Estatutuaren xedea eta oinarrian dituen printzipioak definitzen dira. Orobat, definizioak dituen artikulua bat dago: horietako batzuk kontzeptu orokorrak arau honen esparrura moldatzeko dira; eta gainerakoetan, beste arau batzuetan definituta dauden kontzeptuak bildu dira, testu hau errazago ulertu eta erabiltzeko.

II. Titulua emakumeek nekazaritza-ustategien titulartasuna eskuratzearen ingurukoa da. Testuari koherentzia emateko, Nekazaritza-ustategiak Modernizatzeko uztailaren 4ko 19/1995 Legean ezarritako baldintzak biltzen ditu, Partekatutako Titulartasunaren Legeak aldatu ondoren, eta emakume nekazariak titulartasuna eskuratzea sustatzeko neurriak ere bai. Partekatuen titulartasunaren figura garrantzia handiko tresna izatera deitua dago, nekazaritzaren sektorean emakumeen eta gizonen arteko benetako eskubide-berdintasuna lortzeko; Estatutu honek sustatzen du bizikidetzaren unitateko kide biek lana ustategirako egiten duten ustategiek titulartasun-araubide horri heltzea, laguntzak eta esleipenak egitean ustategi horiei lehentasuna emanez, eta emakume nekazariak Gizarte Segurantzaren afiliatzeko laguntzak finkatuz.

III. Titulua emakumeek nekazaritzaren sektorean duten ordezkartzaren ingurukoa da. Hor, esku hartzeko hiru eremu nabarmentzen dira, eta tratatu bereizia ematen zaie: administrazioa eta bere enpresak, profesionalen erakundeak eta elkarteak eta enpresa pribatuak. Hirurek izendatzaile komun bat dute: emakumeek nekazaritzaren politikan parte hartzeko duten eskubidea egikaritzea eta baliozko solaskidetzat hartzea, beren interesak eta beharrak ordezkatzeko dituzten politikak bultzatzeko. Eremu horiek modu berezian tratatzeko dira, batetik, epe ezberdinetan lor daitezkeela uste den helburuengatik, eta bestetik eta batez ere, helburu horiek lortzeko erabili nahi diren neurriengatik. Legeak helburu batzuk finkatzen ditu, eta epea ezarri; epe horiek betetzean, helburuak bete diren ebaluatu beharko da.

IV. tituluan, jendarte-eskubideena, lan-eremu batzuk azpimarratzen dira: beren berezitasunagatik nekazaritzaren sektorean berariazko tratamendua ezarri behar zaiela pentsatzen da. Horrela da adiskidetzaren erantzukidetzaren gaian, nekazaritza-jarduera ziurtatzeko duten programak bermatzeko; edo emakumeen aurkako indarkeria-arazoen edo jazarpenaren aurrean, sektore horretan ingurune itxiago eta bakartuago batean gertatzen baitira, eta horrek zaildu egiten baitu prebentzioa eta arreta.

V. Tituluaren helburua nekazaritzaren sektorean emakumeek egin duten eta egiten duten lana ikusaraztea eta aintzatestea da. 4/2005 Legean ezarritakoa bildu eta sektore horretara moldatzen du, emakumeak bereziki ikusezin bilakatu diren sektore batean beren lanaren errealitatea beti kontuan izango dela ziurtatzen saiatzeko.

VI. eta azken Tituluan, Lege honetan xedatutakoa betetzeko Segimendu Batzordea sortzen da. Izaera teknikoa eman nahi izan zaio, eta horrela, Nekazaritza eta Abeltzaintza zuzendaria beste kargu publikorik ez dagoen eraketa bat ezarri da; eta kasu horretan ere, eskuordetzea aurreikusten da. Irizpide tekniko berarekin, Batzordeari esleitzen zaizkio ebaluazioak egin eta txostenak lantzeko zeregin zehatzak.

I. TITULUA

XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua.- Xedea.

Lege honen xedeak hauek dira: nekazaritzaren sektorean emakumeen eta gizonen berdintasun-printzipioa egikaritzea; eta emakume nekazariak beren eskubideak gauzatuko dituztela bermatzea, beren autonomia sustatzeko eta jendartean, ekonomian eta politikan duten tokia indartzeko.

2. artikulua.- Printzipioak.

Lege honen printzipioak tratu berdina, aukera-berdintasuna eta genero-ikuspegiaren integrazioa dira.

3. artikulua.- Tratu berdina.

1. Debeku da pertsonen sexuan oinarritzen den bereizkeria oro, nekazaritzaren EAEko administrazioen aldetik, zuzenekoa zein zeharkakoa, edozein delarik ere hartarako erabilitako era.
2. Ez dira sexuagatiko bereizkeriatzat jotzen neurriak, baldin eta, emakumeak eta gizonak ezberdin tratatzea planteatu arren, justifikazio objektiboa eta arrazoizkoa badute; horien artean sartzen dira honako hauetan oinarritzen direnak: emakumeentzako ekintza positiboa, arrazoi biologikoengatik sexu bateko pertsonen babes berezia emateko beharra, edo gizonak etxeko lanetan eta pertsonen zaintzan sartzera bultzatzea.
3. Nekazaritzaren EAEko administrazioek ez diete inolako laguntza edo diru-laguntzarik emango sexuagatik diskriminatzaileak diren jardueri; ez eta pertsona fisiko nahiz juridikoei ere, baldin eta sexuagatiko bereizkeriagatik administrazio-zehapen edo zehapen penalez zigortu badituzte, zigorrean ezarritako denboraldiak irauten duen bitartean.
4. Debekatu egiten zaie nekazaritzaren EAEko administrazioen diru-laguntza eta laguntzen deialdietan parte hartzea, dagokion zigorra indarrean dagoen bitartean, sexuagatik egindako bereizkeria dela-eta administrazio-zehapena edo zehapen penala jaso duten pertsona fisiko edo juridikoei eta Gizon eta Emakumeen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legea betez debeku horrekin zigortutakoei.

4. artikulua.- Ekintza positiboa.

Nekazaritzaren sektorean emakumeen eta gizonen arteko benetako berdintasuna lortzeko, EAEko administrazioek aldi baterako berariazko neurriak hartu behar dituzte, sektore horretan dauden sexuagatiko ezberdintasunak deuseztatu edo murrizteko.

5. artikulua.- Aukera-berdintasuna.

1. Nekazaritzaren EAEko administrazioek neurri egokiak hartu behar dituzte, nekazaritzaren sektorean emakumeek eta gizonek eskubide politikoak, zibilak, ekonomikoak, sozialak eta kulturalak aukera berdinekin baliatzen dituztela bermatzeko.
2. Aukera-berdintasuna ulertzean, boterea eta baliabide zein onurak eskuratzeko abiapuntuan edo hasieran dauden baldintzez gain, horiek gauzatu eta kontrolatzeko baldintzak ere aintzat hartu behar dira.
3. Halaber, nekazaritzaren EAEko administrazioek bermatuko dute eskubideak egiaz gauzatzen direla eta lege honetan araututako baliabideak erabilgarri daudela.
4. Nekazaritzaren EAEko administrazioek ez diete emango laguntzarik edo diru-laguntzarik pertsona fisiko nahiz juridikoei, baldin eta hirugarren Tituluan ezarritako ordezkari-tza-baldintzak titulu horretan ezarritako eran betetzen ez badira.

6. artikulua.- Genero-ikuspegiaren integrazioa.

Nekazaritzaren EAEko administrazioek genero-ikuspegia txertatu behar dute beren politika eta ekintza guztietan, halako moduz non horietan guztietan nekazaritzaren sektorean emakumeen eta gizonen arteko ezberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko helburu orokorra ezarriko duten.

7. artikulua.- Definizioak.

1. Emakume nekazaria: Urteko errentaren % 50, gutxienez, nekazaritza-jardueretatik edo nekazaritza-jarduera osagarrietatik lortzen duena; betiere, bere ustategian egindako nekazaritza-jardueratik zuzenean lortutako errenta ez bada guztizko errentaren % 25a baino txikiagoa, eta nekazaritza-jardueretan edo nekazaritza-jarduera osagarrietan lanean emandako denbora, lanean guztira emandako denboraren erdia baino gehiago bada.
2. Zuzeneko bereizkeria: Egoera horretan, pertsona bati ematen zaion, eman zaion edo eman dakiokeen tratua ez da antzeko egoera batekoa bezain onuragarria, sexuagatik edo zuzenean sexuarekin lotutako inguruabarrengatik, haurdunaldia edo amatasuna kasu.

Zuzeneko bereizkeriatzat joko da, era berean, edukian edo aplikazio praktikoan negatiboki emakumeei bakarrik eragiten dieten irizpideak edo ohiturak sartzea.

3. Zeharkako bereizkeria: Egoera horretan, neutroa dirudien xedapen, irizpide edo ohitura batek sexu jakin bateko pertsonak desabantaila-egoera berezian jartzen ditu, beste sexuko pertsonen aldean, baldin eta ezin bada xedapen, irizpide edo ohitura hori objektiboki justifikatu, bidezko helburu batekin, eta helburu hori lortzeko bitartekoak egokiak eta beharrezkoak ez badira.
4. Bereizkeria anizkoitza: Egoera horretan, bereizkeria-faktore bat edo batzuk gehitzen zaizkio sexuari, kasu zehatz batean, eta hesia edo zailtasuna sortzen dute, lehendik dagoenaz gain; edo bestela, hainbat bereizkeria-faktorek, besteak beste sexuak, elkarreragina dute aldi berean, eta berariazko bereizkeria-modu bat sortzen dute.
5. Ordezkaritza orekatua: Lau lagun baino gehiagoko kide anitzeko organoetan, ordezkariitza orekatua dago, sexu bakoitza gutxienez % 40an ordezkaturik dagoenean; lau lagun edo gutxiagoko kide anitzeko organoetan, bi sexuak ordezkaturik daudenean. Sozietate zibiletan eta merkataritza-sozietateetan, enpresa publikoetan izan ezik, ordezkariitza sexu bakoitzaren esku dauden partaidetza sozialen ehunekoaren edo kopuruaren arabera neurtuko da.

8. artikulua.- Emakume nekazarien aniztasuna.

Emakume nekazarien egoera-ezberdintasunak –etnia, arraza, erlijioa, iritzia, gutxiengo nazionalekoa izatea, hizkuntza, jaiotzea, adina, ezintasuna, sexu-joera, ondarea edo beste edozein baldintzarengatik, pertsonalak edo sozialak– aintzat hartuko dituzte nekazaritzaren EAEko administrazioek, beren ekintza guztietan.

9. artikulua.- Bereizkeria anizkoitza.

Nekazaritzaren EAEko administrazioak emakumeen aurkako bereizkeria anizkoitzeko kasuez arduratuko dira, zein kasutan gertatzen diren zehazteko egin behar diren azterketak egingo dituzte, eta egoera horiei erantzunez landuko dituzte beren enplegu eta zerbitzu-eskaintza politikak.

II. TITULUA

TITULARTASUNA ETA PARTEKATUTAKO TITULARTASUNA NEKAZARITZA-USTIATEGIETAN

10. artikulua.- Titulartasuna lortzeko eskubidea.

1. Emakume nekazariak eskubidea dute, gizon nekazarien baldintza berberetan, nekazaritza-ustategiaren titulartasuna eta horrek dakartzan onura eta eskubide guztiak lortzeko.

2. 7.1 artikuluan definitu den erako emakume nekazari batek lana egiten duen ustiattegietan, legezko figura bati lotu beharko zaizkio, dela titulartasun fisikoa dela elkartze bidezko titulartasuna, emakume nekazaria titular izateak, ikusarazteak eta boteretzeak dakartzan eskubideak lortzea ahalbidetzeko. Titulartasuna lortze hori ez zaie aplikatuko ustiattegian lana besteren kontura egiten duten emakume nekazariari, ez eta ustiattegian kontratatutako profesional autonomoei ere.
3. Nekazaritzaren EAEko administrazioek ustiategien erregistroko titulartasuna emakumeek lortzea bultzatuko dute, bai eta beren ustiategiari dagozkion laguntzen, ordainketen, ekoizpen-eskubideen, sarien, kuoten edo antzeko eragina duten beste neurri batzuen titulartasuna ere.

11. artikulua.- Partekatutako titulartasunaren baldintzak.

1. Estatutu honen ondorioetarako, partekatutako titulartasuneko nekazaritza-ustiategiak dira: nekazaritza-ustiategia batera kudeatzeko, emakume baten eta ezkontidearen edo antzeko afektibotasun-harremanaren bidez lotutako pertsonaren artean eratzen direnak.
2. Nekazaritza-ustiategia partekatutako titulartasunaren araubidean duten titularrek nekazaritza-ustiategien partekatutako titulartasunari buruzko urriaren 4ko 35/2011 Legean edo berori ordeztan duen arauan ezarritako baldintzak bete behar dituzte.
3. Ustiategi horien zerga-erregimena Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako lurralde historikoetako foru-erakundeek finkatuko dute.

12. artikulua.- Partekatutako titulartasunaren araubidea.

1. Ustiategiaren ordezkaritza eta administrazioa bi titularrei egokituko zaie, urriaren 4ko 35/2011 Legean adierazten den bezala.
2. Ustiategiaren titularrari dagozkion laguntza, ordainketa, eskubide, kuota edo indarrean dagoen araudiko bestelako neurri baliokideak titular bakoitzari esleituko zaizkio erdizkan, ustiategiak sortzen dituen mozkinak bezala.
3. Diru-esleipenaren ondoren, aurreko atalean aipatutako diru-sarrerak bikotearen itunetan edo ezkontza-itunetan ezarritakoaren arabera kudeatuko dira, edo bestela, dagokien ekonomia-araubidearen arabera.

13. artikulua.- Partekatutako titulartasunaren erregistroa.

1. Partekatutako titulartasunaren araubidea duten ustiategiei Euskal Autonomia Erkidegoko Nekazaritza-ustiategien Erregistroan utzi beharko dute jasota egoera hori.
2. Bikoteko kide biak agertu beharko dira ustiategiaren titular gisa Erregistroan.

3. Nekazaritza-ustiategien titulartasun partekatuaren gaineko urriaren 4ko 35/2011 Legean xedatzen den bezala egingo da inskripzioa.

14. artikulua.- Zabalkunde neurriak.

Nekazaritzaren EAEko administrazioek informazio, zabalkunde eta sentsibilizazio kanpainak egingo dituzte, emakumeek titulartasuna eta partekatutako titulartasuna lortzearen inguruan.

15. artikulua.- Laguntzak eta diru-laguntzak.

Nekazaritzaren EAEko administrazioen laguntza eta diru-laguntzen arau erregulatzaileran, emakume nekazarien titulartasunari emango zaio lehentasuna, betiere autonomiaz gairik araudiak debekatzen ez badu. Leheneste hori honela egingo da:

1. Aurkeztutako eskaerak erkatu egiten diren prozeduretarako balioespen-irizpideetan, puntuazio bat finkatuko da, lortu daitekeen gehieneko kopuruan gutxienez ehuneko 15 izango dena, titulartasun mota hauek dituzten ustategietarako: emakume baten titulartasuna; edo partekatutako titulartasuna; edo emakumeen esku dagoen ehunekoa edo partaidetza sozialak gutxienez % 50 diren sozietatearena, kideak bi badira; edo gutxienez orekatua, gainerako kasuetan.
2. Diru-laguntzaren xedea jarduera bat gauzatze hutsa denean, zenbateko bat finkatuko da, orokorrean ezarritakoa baino % 10-20 handiagoa, titulartasun mota hauek dituzten ustategietarako: emakume baten titulartasuna; edo partekatutako titulartasuna; edo emakumeen esku dagoen ehunekoa edo partaidetza sozialak gutxienez % 50 diren sozietatearena, kideak bi badira; edo gutxienez orekatua, gainerako kasuetan.
3. Eskaerak erkatu ez arren aurrekontuko partida agortzen denerako hainbanaketa aurreikusten den kasuetan, aurreko paragrafoan aipatutako ustategiek zenbateko osoa jasoko dute, hainbanatu gabe.
4. Nekazaritzaren EAEko administrazioek laguntzak eta diru-laguntzak erregulatzeko arauetan hainbanatzea edo eskaerak erkatzea xedatzen ez denean, kuantifikazio-irizpideetan titulartasun mota hauek finkatuko dira, laguntza eskatzen duen ustategirako: emakume baten titulartasuna; edo partekatutako titulartasuna; edo emakumeen esku dagoen ehunekoa edo partaidetza sozialak gutxienez % 50 diren sozietatearena, kideak bi badira; edo gutxienez orekatua, gainerako kasuetan.

16. artikulua.- Esleipenak.

Kuota-esleipenez, Nekazaritzako Lur Funtseko lursailak esleitzeaz, lantzeko administrazio-baimenaz eta antzekoez erabakiak hartzean, lehentasuna emango zaie titulartasun mota hauek dituzten ustategien eskaerei: emakume baten titulartasuna; edo partekatutako titulartasuna; edo emakumeen esku dagoen ehunekoa edo partaidetza sozialak gutxienez % 50 diren sozietatearena, kideak bi badira; edo gutxienez orekatua, gainerako kasuetan.

17. artikulua.- Emakumeak Gizarte Segurantzaren afiliatzera bultzatzea.

Nekazaritzaren EAEko administrazioek laguntza-programak finkatuko dituzte, lana nekazaritzaren sektorean egiten duten emakumeak Nekazarien Gizarte Segurantzaren afiliatzeko.

Programa horiek emakume guztiei aplikatuko zaizkie, Euskal Autonomia Erkidegoan dauden nekazaritza-ustategien titularrak nahiz titularkideak izan, Norberaren Konturako Langileen edo Autonomoen Araubide Berezian sartzen badira, Gizarte Segurantzako Nekazaritzako Norberaren Konturako Langileen Sistema Bereziaren bitartez, edo une jakin batean dagokien araubidean: bereziki, Gizarte Segurantzaren sartuta erretiro-pentsioa jasotzeko eskubiderik ez dela sortuko kalkulatzeko denean.

III. TITULUA

NEKAZARITZAREN SEKTOREAN EMAKUMEEK DUTEN ORDEZKARITZA

18. artikulua.- Sektore publikoan parte artesa.

1. EAEko sektore publikoa osatzen duten eta nekazaritzaren arloan zuzeneko eskumenak dituzten entitate guztien zuzendaritza-organoak eratzeke edo horietan kide izateko pertsonak izendatzea eta hautatzea, emakumeen eta gizonen arteko oreka mantenduz egingo da
2. Laguntza eta diru-laguntzen eskaerak balioetsi behar dituzten ebaluazio-epaimahaiek eta batzordeek eraketa orekatua eduki behar dute emakume eta gizon kopuruan.
3. Sektore publikoa partaide den nekazaritzaren arloko entitateetako zuzendaritza-organoak eratzeke edo horietan kide izateko pertsonak izendatzea, emakumeen eta gizonen arteko oreka mantenduz egingo da. Sektore publikoak parte hartzen duen entitateak dira EAEko Ogasuna Antolatzen duten Printzipioen Legearen testu bategineko xedapen gehigarri bakarrean zehaztutakoak, martxoaren 1eko 6/2012 Legeak emandako idazkeraren arabera; azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuak onartu zuen testu bategin hori.

19. artikulua.- Partaidetza soziala eta politikoa.

1. Emakume nekazariak eskubidea dute, beren interesak eta beharrak ordezkatzeko dituzten politikak bultzatzean baliozko solaskidetzat hartuak izateko.
2. Nekazaritzaren EAEko administrazioek sustatu behar dute emakumeen presentzia gutxienez orekatua izatea, nekazaritzaren arloan jarduten duten profesionalen, enpresen, sindikatuen edo bestelakoen elkarte eta erakundeen zuzendaritza-organoetan.
3. Nekazaritzaren EAEko administrazioek ez diete laguntzarik ez eta diru-laguntzarik emango nekazaritzaren arloan jarduten duten profesionalen, enpresen, sindikatuen edo bestelakoen elkarte edo erakundeei, zuzendaritza-organoetan emakumeen presentzia gutxienez orekatua ez badute. Estatutu honen bigarren xedapen gehigarrian adierazten den bezala ezarriko da neurri hori.
4. Eskaerak balioesteko ardura duen administrazio-organoak salbuespenak jarri ahal izango ditu, emakumeek parte hartzeko finkatutako helburuak ezin dituztela bete egiaztatzen duten elkarte eta erakundeen kasuan. Ezinezkoa dela ulertuko da, baldin eta elkarteko edo erakundeko emakumeen kopurua txikiagoa bada presentzia orekatua izateko ordezkartza-organoetan parte hartu beharko luketenen bikoitza baino.

20. artikulua.- Emakumeen sustapena eta inoren konturako enplegua nekazaritzaren sektorean.

1. Nekazaritzaren EAEko administrazioen laguntzak eta diru-laguntzak erregulatzen dituzten arauetan sistema bat finkatuko da, norgehiagoka prozeduretarako, publikitate, lehia eta objektibotasun printzipioak errespetatuz sektoreko enpresek emakumeen kontratazioari eta sustapen profesionalari lehentasuna emateko.
2. Kasu horietan, emakumeei gutxienez enpleguen ehuneko 40 ematen dieten enpresentzat, balioespen-irizpideen artean puntuazio bat ezarriko da gertaera horregatik, lor daitekeen gehieneko puntuazioaren ehuneko 15 gutxienez izango dena.
3. Eskaerak erkatu ez arren aurrekontuko partida agortzen denerako hainbanaketa aurreikusten den kasuetan, aurreko paragrafoan aipatutako enpresek zenbateko osoa jasoko dute, hainbanatu gabe.
4. Nekazaritzaren EAEko administrazioek laguntzak eta diru-laguntzak erregulatzeko arauetan hainbanatzea edo eskaerak erkatzea xedatzen ez denean, balioespen-irizpideetan edo kuantifikazio-irizpideetan finkatuko da enpresa eskatzaileek gutxienez enpleguen ehuneko 40 emakumeei eman behar dietela.
5. Aurreko ataletan aurreikusitako lehentasunak ez zaizkie aplikatuko enpresei, zuzendaritza-organoetan emakumeen partaidetzak gutxienez proportzio orekatua ez badu.

21. artikulua.- Hitzarmenak.

Nekazaritzaren EAEko administrazioek izenpetutako hitzarmenen klausuletan, emakumeek parte hartzea sustatzeko konpromiso bat sartuko da, bai erakunde sinatzaileen jarduteko eremuan eta bai beren erabaki-organoetan.

IV. TITULUA

JENDARTE-ESKUBIDEAK

22. artikulua.- Bateratze erantzukidea.

- 1.- Lana nekazaritzaren sektorean egiten duten pertsonen amatasunaren eta aitatasunaren ondorio diren eskubideak babestu egingo dituzte EAEko administrazioek, eta horrela, haurdunaldiagatik, edoskitzaroagatik edo seme-alaben zaintzagatik nekazaritza-jarduera eten behar denean, lurraldean dauden ordezkapen-zerbitzuak edo jendarte-zerbitzuak erabili ahal izango dituzte.
- 2.- Lanerako ezintasun iragankorreko kasuetan, nekazaritzaren EAEko administrazioek bermatu egingo dituzte nekazaritza-jarduera mantentzea ahalbidetuko duten ordezkapen-zerbitzuak.
- 3.- Lana nekazaritzaren sektorean egiten duten emakumeek eskubidea dute aisialdirako, denbora librea izateko eta atsedeen hartzeko. Egiaz bete dadin, nekazaritzaren EAEko administrazioek ordezkapen-zerbitzuak jarriko dituzte, nekazaritza-jarduera mantendu ahal izateko: bereziki, mendekotasuna duten pertsonen zaintzaileen kasuan.
- 4.- Nekazaritzaren arloan erantzukidetasuna bultzatuko duten baliabideen informazio, sentsibilizazio eta zabalkunde kanpainak egingo dituzte EAEko administrazioek, eta neurriak eta programak ezarriko dituzte, etxeko lanetan eta mendekotasuna duten pertsonen zaintzan gizon nekazariak zereginak beren gain hartzea bultzatzeko.

23. artikulua.- Osasuna lanean.

- 1.- Emakume nekazariak eskubidea dute, lanean beren osasuna babes dadin, eta nekazaritzaren arloan osasunean emakumeek eta gizonek izan ditzakeen faktore bereizgarriak aintzat har daitezen.

- 2.- Laneko osasunaren arloan eskumena duten EAEko administrazioek aintzat hartuko dituzte nekazaritzaren arloan emakumeen eta gizonen osasunean dauden faktore bereizgarriak; eta sustatu egingo dituzte horiek atzeman eta kontrolatzeko ekintzak eta emakume nekazarien kasuan lan-arriskuak modu eraginkorrean ekiditeko neurriak.
- 3.- Ekintza horietan, sexu bakoitzeko pertsonengan eragina duten berariazko arrisku-faktoreak hartuko dira aintzat, baita arrisku-faktore komunek emakumeengan eta gizonengan izan dezaketen eragin ezberdina ere.
- 4.- Nekazaritzaren sektorekoak diren laneko segurtasunaren eta osasunaren politiketan, estrategietan eta planetan, emakumeen eta gizonen balio, rol, egoera, baldintza, igurikimen eta behar ezberdinak hartuko dira aintzat, eta osasun-maila berdintsuak lortzera zuzendutako helburuak, jomugak eta ekintzak txertatuko dira. Edonola ere, hau egin beharko da:
 - a) Emakume nekazarien artean lan-arriskuei aurre egiteko araudia aplikatzen den behatu eta kontrolatu, honela:
 - Gai horren diagnostiko guztietan sexuaren aldagaia sartuz eta lortutako datuak sexuen arabera bereizita ustiatuz.
 - Emakume eta gizonen balio, rol, egoera, baldintza eta igurikimene ezberdintasunak hobeto ezagutzea ahalbidetuko duten adierazleak identifikatu eta definituz.
 - b) Lanpostu, lanabes, ekipo, lan-prozesu eta abarren diseinuan emakumeen eta gizonen arteko ezberdintasunak kontuan izatea bultzatu.
 - c) Arriskuei aurrea hartzeko kontsulta eta erabaki organoetan emakumeen eta gizonen arteko eraketa orekatua bermatu.
 - d) Informazio, komunikazio eta prestakuntza planetan, emakumeen eta gizonen arrisku komunak eta berariazkoen gaineko informazioa ematera zuzendutako helburuak eta ekintzak sartu.
 - e) Osasuna zaintzeko zerbitzuek beren ekintza guztietan genero-ikuspegia sartzea bermatu.

24. artikulua.- Babesa, emakumeen aurkako indarkeriaren eta sexu-jazarpenaren aurrean.

- 1.- Lana nekazaritzaren sektorean egiten duten emakumeek eskubidea dute, emakumeen aurkako indarkeriari aurrea hartzeko informazio eta arreta baliabide eskuragarriak eta kalitatezkoak izateko. EAEko administrazioek aintzat hartuko dituzte sektorearen berariazko inguruabarrak, eta beharrezko neurriak ezarriko dituzte eskubide hori bermatzeko.

- 2.- Emakumeen aurkako indarkeria jasan duten emakume nekazariak eskubidea dute beren lana egiten jarraitzeko. Herri-administrazioek beharrezko neurriak hartuko dituzte eskubide hori egikaritzea bermatzeko.
- 3.- EAEko administrazioek ziurtatu egin beharko dute lana nekazaritzaren sektorean egin eta jazarpen sexista edo sexu-jazarpena jasaten duten emakumeek informazio eta arreta baliabide eskuragarriak eta kalitatezkoak dituztela. Nolanahi ere, sexu-jazarpena edo jazarpen sexista jasaten duten emakume nekazariak arreta hori erabilgarri izatea ahalbidetuko duten moduak jarri beharko dira.

25. artikulua.- Prestakuntza-eskubidea.

- 1.- Lana nekazaritzaren sektorean egiten duten emakumeek eskubidea dute beren interesen eta beharren arabera prestakuntza jasotzeko, bai eta profesionalizazioari eta nekazaritzaren arloko informazioaren teknologia berriei, ikerkuntzari, garapenari eta teknologia-trekakuntzari loturikoa ere.
- 2.- EAEko administrazioek berariazko prestakuntza-programak jarriko dituzte, nekazaritzaren sektoreko emakumei zuzenduak: batik bat profesionalizazioari laguntzen diotenak eta bereziki erreparatzen diotenak bai teknologia berriei eta bai informazioaren jendartearen inguruko prestakuntzari.
- 3.- Emakumeek lehentasuna izango dute, nekazaritzaren arloko prestakuntza eta gaikuntza ikastaro eta programetan sartzeko.

26. artikulua.- Berdintasunean heztea.

- 1.- Nekazariak gaitzeko prestakuntzan, EAEko administrazioek gizonak eta emakumeak berdintasunean heztea bultzatuko dute.
- 2.- Besteak beste, neurri hauek hartuko dituzte:
 - a) Nekazaritzaren arloko prestakuntza eskaintzen duten irakasleak hezkidetzan trebatzea sustatuko dute.
 - b) Heziketa-planeko helburuetan eta nekazaritzaren arloko prestakuntzaren ebaluazio-adierazleetan, hezkidetzak sartuko dute.
 - c) Genero-ikuspegitik aztertuko dituzte nekazaritzaren arloko prestakuntzan erabilitako materialak, materialik gomendagarrienak zeintzuk diren zehazteko, eta halakorik badago desegokiak izan daitezkeenak ere bai; eta aldaketa egokiak planteatuko dira.
 - d) Berdintasunaren gaineko moduluak sartuko dituzte, nekazaritzarako gaitzeko programetan.

- 3.- Nekazaritzaren EAEko administrazioek beharrezko neurriak hartu behar dituzte, beren langileek emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren gaian prestakuntza oinarritzkoa, mailakatua eta etengabea jaso dezaten, estatutu honetan jasotako xedapenak betetzeko, eta nekazaritzaren sektorean genero-ikuspegia benetan sartzea ahalbidetuko duen behar adinako ezagutza praktikoa bermatzeko.

V. TITULUA

EMAKUME NEKAZARIAK AITZATESTEA ETA IKUSARAZTEA

27. artikulua.- Emakumeen lana aintzatestea.

Lana nekazaritzaren sektorean egiten duten emakumeek eskubidea dute, egin duten eta egiten duten lana ikusarazi eta aintzatetsi dadin. EAEko administrazioek sustatuko dute emakumeak ikusaraztea eta aintzatestea, beharrezkotzat jotzen diren azterketak, informazio-kanpainak, sariak edo beste bide batzuk baliatuz.

28. artikulua.- Azterketak, ikerketak eta estatistikak.

Nekazaritzaren EAEko administrazioek, nekazaritzaren gaian eta beren ohiko jardueran arlokako politikak garatzean, genero-ikuspegia sartuko dute, neurri hauen bidez:

1. Estatistikak egokitzekeo neurriak eta nekazaritzaren arloko azterketak:
 - a) Egiten diren estatistiketan, inkestetan eta datuen bilketetan, sexuaren aldagaia sistematikoki sartzea.
 - b) Adierazleak finkatu eta estatistika-eragiketetan sartzea, emakume eta gizon nekazarien balio, rol, egoera, baldintza, asmo eta beharretan dauden alde berri izatea ziurtatzeko.
 - c) Adierazleak eta mekanismoak diseinatzea eta txertatzea, bereizkeria anizkoitzeko egoerak sor ditzaketen bestelako aldagaien eraginaren berri izatea ahalbidetzeko.
 - d) Txertaturiko aldagaiak sexuaren aldagaiaren arabera ustiatzeko eta aztertzekeo aukera ematekeo adinako lagin zabalak hartzea.
 - e) Eskura dauden datuak ustiatzea, emakumeen eta gizonen egoera, baldintza, asmo eta behar ezberdinen berri izatekeo moduan.

- f) Lehendik dauden estatistika-definizioak berrikustea eta behar izanez gero egokitzea, emakume nekazarien lana aintzatesten eta balioesten laguntzeko.
2. Nekazaritzaren EAEko administrazioek azterketak eta ikerketak sustatuko dituzte, nekazaritzaren arloko emakumeen eta gizonen baldintza eta behar ezberdinak aztertu ahal izateko; eta ez dute emango diru-laguntzarik, laguntzarik edo babes-neuririk, genero-ikuspegia sartzen ez duten azterketa eta ikerketetarako.

VI. TITULUA

SEGIMENDU-BATZORDEA

29. artikulua.- Sorrera eta eraketa.

1. Lege honetan xedatutakoa betetzen den egiaztatuz segimendua egiteko, Segimendu Batzorde bat sortzen da, eta osaera hau izango du:
- a) Nekazaritza zuzendaria edo hark ordezkari izendatzen duena; Batzordearen buru izango da.
 - b) Berdintasunerako Administrazio Unitateko langileen artean hautatutako pertsona bat, nekazaritzaren gaian eskumena duen sailekoa.
 - c) Landa-garapenaren gaian eskumena duen zuzendaritzako langileen artean hautatutako pertsona bat.
 - d) Lege-aholkularitzako langileen artean hautatutako pertsona bat, nekazaritzaren gaian eskumena duen sailekoa.
 - e) Foru aldundien ordezkari bana, nekazaritzaren gaian eskumena duten sailetakoak.
 - f) Emakunderen ordezkari bat.
 - g) Landa-eremuko Emakumeen Batzordearen ordezkari bat.
 - h) EUEDEL Euskadiko Udalen Elkartearen ordezkari bat.
 - i) Hiru ordezkari, nekazaritzaren arloko EAEko sindikatu esanguratsuenenak.

2. Gaiaren berezitasunagatik espezialistak edo halabeharrez zerikusia duten beste pertsona batzuk behar direnean, eta Batzordekoak ez direnean, batzordeburuaren eskariz deitu ahal izango zaie.
3. Batzordean, emakumeek presentzia orekatua izango dute, gutxienez.

30. artikulua.- Funtzioak.

1. Segimendu Batzordeak aztertuko du lege honen xedeak zenbateraino betetzen diren, eta txostena egingo du urtero, eta, bereziki, II, III eta IV. tituluetan xedatzen diren neurriek sektorean nolako eragina duten ebaluatuko du. Ahalik eta zabalkunderik handiena emango zaio txosten horri.
2. Hartutako betebeharrak edo ezarritako helburuak ez direla betetzen ari ikusten bada, edo aurreikusitako epeetan ez direla lortzen, arartekoari eta Eusko Legebiltzarrari berariazko komunikazio bat bidaliko zaie atzematen diren ez-betetzeen ingurukoa.
3. Ondoz ondoko hiru txostenetan ikusten bada emakume nekazarien egoera sozial, ekonomiko eta politikoa gizonen egoerarekin parekatu dela eta egoera horretan atzera egin daitekeela erakusten duen daturik ez badago, diskriminazio positiboa egiteko beharrezkotzat jotzen ez diren neurriak kentzea proposatuko du Batzordeak.

31. artikulua.- Funtzionamendua.

Segimendu Batzordeak berak finkatzen dituen arauak beteko ditu, eta arau horien ordezkoa Herri Administrazioen Araubide Juridikoa eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legean xedatutakoa izango da, kide anitzeko organoei dagokienean.

XEDAPEN GEHIGARRIAK

Lehena.- Landa-garapeneko elkarteak.

Landa-garapeneko elkarteek egokitu egingo dituzte beren estatutuak, lege hau indarrean sartu eta hiru urteko epean, emakume eta gizonen parte-hartze orekatua bermatuta egon dadin.

Bigarrena.- Laguntzak elkarte eta erakundeei.

Nekazaritzako elkarte eta erakundeei ematen zaizkien laguntzak kuantifikatzeko irizpideetan guztira lor daitekeen puntuazioaren ehuneko hamabost balioko du, gutxienez, emakumeen presentziak: lege hau indarrean sartu ondorengo bost urteetan egiten diren deialdietan, nekazaritzako elkarte eta erakundeen zuzendaritza-organoetan emakumeak egoteak; eta hurrengo bost urteetan, presentzia gutxienez orekatua izateak.

Lege hau indarrean sartu ondorengo lehen bost urteak igarota, nekazaritzaren EAEko administrazioek ez diete laguntzarik eta diru-laguntzarik emango nekazaritzaren arloan jarduten duten profesionalen, enpresen, sindikatuen edo bestelakoen elkarte edo erakundeei, zuzendaritza-organoetan emakumerik ez badute; eta hamar urteren ondoren, ez zaie laguntzarik emango zuzendaritza-organoetan emakumeen presentzia gutxienez orekatua ez dutenei.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Indargabetu egiten da Nekazaritza eta Elikagaigintza Politikako abenduaren 23ko 17/2008 Legearen 76. artikulua eta maila bereko edo txikiagoko beste edozein xedapen, lege honek ezarritakoaren aurka badoa.

AZKEN XEDAPENAK

Lehena.- Nekazaritza eta Elikagaigintza Politikako abenduaren 23ko 17/2008 Legearen 14. artikulua aldatzea.

Hona hemen Nekazaritza eta Elikagai Politikako abenduaren 23ko 17/2008 Legearen 14. artikulua 3. paragrafoaren testu berria:

“3.- Nekazaritzako lur-funtsen aktiboak hainbat helburutara bideratuko dira lehentasunez; ondorengo hauek dira helburuok:

a) Nekazaritzan ari diren emakumeak eta nekazari gazteak finkatzea.

- b) Nekazaritza-ustiategi berriak sortzea, landa-guneetako exodoa eragozteko.*
- c) Egun martxan diren nekazaritza-ustiategiak handitzea.*
- d) Nekazari-herrixkak edo lursail-eremuak sortzea, bertan nekazaritza-jarduerak gauzatu ahal izateko.”*

Bigarrena.- Nekazaritza eta Elikagaigintza Politikako abenduaren 23ko 17/2008 Legearen 92. artikulua aldatzea.

Hona hemen Nekazaritza eta Elikagaigintza Politikako abenduaren 23ko 17/2008 Legearen 92. artikulua 3. zenbakiaren testu berria, n) letra gehituta:

“2.- Kontseilua honako kideek osatuko dute:

- a) Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrean nekazaritzako eta elikagaigintzako gaietan eskumena daukan titularrak. Lehendakari-lanetan arituko da, eta Kontseilurako dei egiteaz eta landu beharreko gaiak zehazteaz arduratuko da.*
- b) Sail horretako sailburuaren kabineteko zuzendaritzaren titularrak, lehendakariorde-lanetan.*
- c) Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrean nekazaritzako eta elikagaigintzako gaietan eskumena daukan saileko bi ordezkari; gutxienez, zuzendari-kargua dutenak.*
- d) Arabako Foru Aldundiko ordezkari batek; gutxienez, zuzendari-kargua duenak.*
- e) Bizkaiko Foru Aldundiko ordezkari batek; gutxienez, zuzendari-kargua duenak.*
- f) Gipuzkoako Foru Aldundiko ordezkari batek; gutxienez, zuzendari-kargua duenak.*
- g) Euskadiko Udalen Elkarteko (EUDEL) ordezkari bat.*
- h) Nekazarien elkarte profesional adierazgarrienen arteko bakoitzak 88. artikuluan ezarritako eran lortutako ordezkariak; gehienez 5, elkarte bakoitzeko.*
- i) Euskadiko ekoizleen elkarteetako ordezkariak, lege honen 89.2 artikuluan xedatzen denaren arabera.*
- j) Euskadiko nekazaritza- eta elikagaigintza-industrien elkarteetako hiru ordezkari, elkarteek adostasunez izendatutakoak. Txandaka daitezke.*
- k) Euskadiko Basogintza Elkarteen Konfederakundeko ordezkari bat.*

l) Euskadiko Nekazaritza Kooperatiben Federazioko ordezkari bat.

m) Nekazaritza-ustiategien aholkulari gisa aitortuta dauden erakundeen ordezkari bat, erakundeok adostasunez izendatutakoak. Txandaka daitezke.

n) Landa-eremuko Emakumeen Batzordearen ordezkari bat.”

Hirugarrena.- Erregelamendu bidezko garapena.

Autonomia-erkidegoko erakunde komunek eta lurralde historikoetako foru-organoek beharrezko aldaketak onartuko dituzte beren arauetan, lege honek xedatzen duenari moldatzeko, legea indarrean sartzen denetik hiru urteko epean, lurralde historiko bakoitzak dituen eskumenak alde batera utzi gabe.

Laugarrena.- Indarrean sartzea.

Lege hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.